



Arartekoaren 2023R-323-23 ebazpena, 2023ko apirilaren 26koa. Honen bidez, Errenteriako Udalari gomendatzen zaio hirigintzako informazioa eskuratzeko eskaera bati erantzuteko.

Aurrekariak

- Pertsona batek Arartekoan kexa jarri zuen Errenteriako Udalak ez ziolako erantzun Errenterian XXXX enpresari emandako obra-lizentzia bati buruzko hirigintzako informazioaren eskaera bati.

Adierazitakoaren arabera, 2022ko azaroaren 28an, kexagileak idazki bat aurkeztu zuen, zeinaren bidez salatu baitzituen jarduera hori gauzatzen den instalazioetan sortutako zaratek eta usainek eragindako arazoak.

Eskaera horretan kexagileak udal-informazioa eskatu zuen honako honi buruz: XXXX enpresari emandako hirigintzako obra-lizentzian instalazio berriek eragindako zaratak gutxitzeko jasotako neurriak, instalazio horien ezaugarriak, atsedenerako eskubidea babesteko udalaren neurriak eta udalak zenbat aldiz salatu dituen organo eskudunean XXXXK eragindako usain txarrak.

2022ko azaroaren 30ean, kexagileak berriz eskatu zuen paperean eskuratzeko Errenteriako Udalaren erantzunean aipatutako eranskin batzuk, zeinek dokumentazioa baitzuten.

2022ko abenduaren 14an, Errenteriako Udalak jakinarazi zion 2022ko azaroaren 28an aurkeztutako eskaera salaketa gisa hartu zela eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera bidali zutela.

Kexagileak Arartekora jo zuen adierazteko ez dagoela ados erantzun horrekin, ez baitiote erantzun hirigintzako informazioa eskuratzeko egindako eskaerari.

- 2023ko martxoaren 6an, Arartekoak Errenteriako Udalari informazioa eskatu zion hirigintza-lizentziaren harira egindako hirigintzako informazioaren eskaeraren izapideari buruz.

2023ko martxoaren 20an, Errenteriako Udalak erakunde honi txosten bat bidali zion, zeinaren bidez aipatzen baitira XXXX enpresaren jarduerak eragiten dituen zaraten eta usainen harira kexagileari emandako zenbait erantzun.

“ Udal honek sustatuta oro har egin diren bileretan, XXXXren jarduerak inguruan sortzen dituen zaraten eta usainen inguruko kolektiboen kexak aztertu dira.

Horietan, Udalak bere konpromisoari eutsi dio, bere erakundearen abenduaren 2ko 2002IR 1803-22 eta 2022ko abenduaren 5eko 2022IR-1887-22 ebazpenei jarraituz, kexak gai horretan eskumena duen organoari (Eusko Jaurlaritzako



Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari) helarazteko, eta hala egin du 2022ko azaroaz geroztik.

Horren berri izan arren, pertsona batzuek Udalari zuzenean eta etengabe erreklamatzeko diote erantzukizuna, XXXXk garatzen duen jarduerarekin eta duen ingurumen-baimen integratuarekin zuzenean lotuta dauden gaiei dagokienez, eta, ondoren, buru zaituen erakundera jotzen dute, zure erreklamazioen aurrean jarduerarik eza edo jarduerarik eza salatuz."

Salaketen, kexen eta zaratak neurtzeko beren etxebizitzak lagatzen zituzten auzotarren zerranda osoak eskuratzeko eskaeraren harira, Errenteriako Udalak honako hau adierazi zuen: *"azken eskaera horri ezin izan zitzaion erantzun, zerranda biek datu pertsonal ugari baitzituzten, indarrean dagoen legediak babestuak, eta hala jakinarazi zitzaion XXXX jaunari Ingurumeneko Aholku Batzordeak 2022ko abenduaren 1ean egindako bileran, udal-bulegoetan (jakinarazpen hori jasota dago bilkuraren aktan)".*

Kexagilearen 2022ko azaroaren 28ko eskaerari emandako erantzunaren harira (eskaera horren bidez informazioa eskatu zen XXXX enpresari emandako hirigintzako obra-lizentziari buruz eta udalak usain txarrak organo eskuduneari salatu dituen aldiei buruz), honako balorazio hau dago txostenean jasota:

"Udalak, eskaera horren aurrean, eta kontuan hartuta IBBren berezko gaiei buruz ari zela, ofiziosz igorri zion eskaera Eusko Jaurlaritzari abenduaren 13an, eta abenduaren 14an jakinarazi zion XXXX jaunari kexa organo eskudunari bidali zitzaiola ebazteko.

Udal honek ez daki zergatik XXXX jaunak, berak aurkeztuko kexa ebazteko organo eskuduna Eusko Jaurlaritza dela jakinda, aurkeztutako idazkian bertan aitortzen duen bezala (Errenteriako Udalak organo eskudunari zenbat aldiz salatu dizkion XXXXk sortutako usain txarrak) kexak Errenteriako Udalean aurkezteko eta Eusko Jaurlaritzan bertan ez aurkezteko, azken administrazio horrek dituen baliabide telematikoak erabiliz eta herritar guztien eskura jarritz.

Nolanahi ere, baieztatu daiteke Udalak indarren dauden lege-xedapenei jarraiki Udalak ezarritako protokoloaren arabera jardun duela aurkeztutako kexaren aurrean, eta zu buru zaituen erakundeak berretsi egin zuela zure ebazpenak eragin zituzten aurreko bi kexei jarraitu behar zitzaizela.

Udal hau erabat aldekoa da gardentasunaren eta kontu ematearen alde jardun publikoan, baina nabarmendu behar da behin eta berriz kexak aurkeztu direla udal honetan sistematikoki, eta erreklamazioak erabat jabetzen dela salatzen dituen eragozpenen ebazpenari udal administrazioa ez den beste administrazio batek bakarrik ekin eta konpondu ditzakeela."



Informazio hori ikusita, eta bertako edukiak aztertu ostean, erakunde honek honako gogoeta hauek helarazi ditu:

Gogoetak

1. Lehenengo eta behin, adierazi behar da kasu honetan kexagileak Arartekoan kexa bat jarri duela Errenteriko Udalak emandako erantzunagatik; XXXX enpresari Errenterian emandako obra-lizentziari lotuta udal-administrazio horretan dagoen informazioa eskuratzeko eskaera bati emandako erantzunagatik, hain zuzen.

Gai hori, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzkoa, industria-jarduera horren kontrol egokia eskatzeko aurkeztutako salaketan osagarria da, eta, kontrol hori, aurrekarietan aipatutako udal-txostenak adierazten duen bezala, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagokio.

Erakunde honek 2022ko abenduaren 5eko 1887-22 Ebazpenean adierazi zuen bezala, herritarrek administrazio ona izateko duten eskubideak berekin dakar administrazio publikoek beren aurrean aurkezten diren idazkiak jaso dituztela adieraztea, dagokien prozeduran ofizioz bultzatzea eta mahaigaineraturiko arazo eta errekurtsio guztiei zentzuzko epean erantzun behar izatea.

Erreklamazioan azaldutakoaren antzeko kasuetan ere aplikatu behar dira administrazio onaren printzipio horiek, pertsona batek udal administrazio horrek duen hirigintzako askotariko informazioa eskatzen duenean.

2. Espediente eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko pertsona guztien eskubidea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan araututa dago.

Bestalde, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, informazio publikoa eskuratzeko prozedura arautzen du.

Eskubide horren esparru objektiboa 13. artikuluan arautzen da, zeinak informazio publiko gisa definitzen baititu administrazio horren esku dauden eta bere eginkizunak betetz egin edo eskuratu diren dokumentu guztiak; horien formatua edo euskarria gorabehera.

Hala, informazioa eskuratzeko eskubide hori dokumentu, txosten, irizpen, erabaki, jakinarazpen eta administrazio-jarduketa baterako aurrekari eta oinarri izan daitezkeen gainerako eginbide eta jarduketa guztietarako jasotzen da, jarduketa hori gauzatzen egon edo amaituta egon gorabehera. Hala ere, eskuratzeko eskubide horrek ez du esan nahi, azterlan edo banakapenen bidez, eskaerei erantzuteko dagoen dokumentazioa egiaztatu edo berrantolatu behar denik.



Nolanahi ere, administrazio-jarduketak bermatu egin behar du eskubidea baliatzea, erreklamatzaillearen esku jarriz sail guztietan bere asmoari buruz dauden dokumentu eta txosten guztien zerrenda.

19/2013 Legearen 17. artikulua informazioa eskuratzeko eskaera egiteko jarraitu beharreko prozedura zehazten du. Prozedura hori informazioa duen administrazioari eskaera aurkeztean hasiko da. Horretarako, eskatzaileak bere nortasuna, eskatzen duen informazioa eta eskatutako informazioa eskuratzeko nahiago duen modalitatea soilik egiaztatu beharko ditu.

Eskuratzeko eskaerei gehienez ere hilabeteko epean erantzun behar zaie, eskatzailearen asmoarekin bat etorritik eta arrazoituta. Era berean, ebazpenak adierazi beharko du zer errekurtso jar daitezkeen ebazpenaren aurka, eta horien artean aipatu beharko da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean erreklamazioa jartzeko aukera.

3. Informazioa eskuratzeko eskubide horrek izan ditzakeen mugei dagokienez, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 14. artikulua eta 18. artikulua hainbat arrazoi zerrendatzen dituzte informazio-eskaerak mugatzeko edo ez onartzeko. Nolanahi ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak honako hau adierazi du 2017ko urriaren 16ko eta 2020ko martxoaren 10eko epaietan: *"(...) La formulación amplia en el reconocimiento y en la regulación legal del derecho de acceso a la información obliga a interpretar de forma estricta, cuando no restrictiva, tanto las limitaciones a ese derecho que se contemplan en el artículo 14.1 de la Ley 19/2013 como las causas de inadmisión de solicitudes de información que aparecen enumeradas en el artículo 18.1, sin que quepa aceptar limitaciones que supongan un menoscabo injustificado y desproporcionado del derecho de acceso a la información"*.

Horri dagokionez, eskubide hori mugatu egin daiteke datu pertsonalen babesari kalte egin diezaiokeen informazioa eskuratu nahi denean.

Eskatutako informazioak pertsona fisikoen datu bereziki babestuak baditu – ideologia, afiliazio sindikala, erlijioa, sinesmenak, arraza- edo etnia-jatorria edo bitziza sexuala erakusten dituzten datuak –, datu horiek eskuratzeko baimendu ahal izango da soilik eragindako pertsonaren berriazko eta idatzizko baimena dagoenean edo lege-mailako arau batek babesten duenean.

Bestalde, eskatutako informazioak bereziki babestuta ez dauden datu pertsonalak dituztenean, administrazioak, informazioa eskuratzeko aukera emateko, *haztapen aski arrazoitua* egin behar du: alde batetik, informazioa zabaltzeko interes publikoa, eta, bestetik, datuek ukitutakoen eskubideak. Kasu horretan, kontuan hartu behar da eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena eragiten zaiela dokumentuek identifikazio-datu hutsak dituztenean.

Administrazioak uste badu informazioa eskuratzeko identifikatutako bitartekoen eskubideei eragin diezaikeela, nahitaez bete beharreko izapide bat aurreikusten



du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 19.3 artikulua: *“Eskatutako informazioak hirugarren batzuen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, eta behar bezala identifikatuta badaude, hamabost eguneko epea emango zaie nahi dituzten alegazioak egiteko. Eskaera-egileari horren berri eman beharko zaio, eta, era berean, jakinaraziko zaio ebazpena emateko epea eten egiten dela harik eta alegazioak hartzen diren arte edo alegazioak aurkezteko epea igarotzen den arte.”*

Garrantzitsua da adieraztea araudian aurreikusitako mugaren baten aplikazioak informazio osoari eragiten ez badio, informazio horren zati bat eskuratzeko baimena emango dela, ukitutako informazioa aipatu gabe.

Kasu guztietan, eskuratzeko ukatzen duen ebazpenak arrazoitua izan behar du, bai eta partzialki eskuratzeko baimentzen denean eta bitartekoren bat aurka egon arren eskuratzeko baimentzen denean ere.

5. Hirigintza-arloko araudian ere berriaz jaso da hirigintza-arloko informazioa eskuratzeko eskubidea. Hori da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5 c) artikulua kasua. Araudi horrek herritar guztiei aitortu die administrazio publikoek duten hirigintza-informazioa eskuratzeko eskubidea, bai eta kopia bat lortzekoa ere.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. artikulua ere aitortzen du pertsona orok eskubidea duela administrazio publiko eskudunen artxiboetan dagoen dokumentazioa eskuratzeko eta horren kopia lortzeko, legeetan ezarritako muga orokorrez gain.

Auzitegi Gorenaren 2272/2022 Epaiak, 2022ko ekainaren 2koak, honako hau adierazi du hirigintza-arloko informazio-eskaerei dagokienez, baldin eta eskatzailea ez bada interesduna administrazio-prozeduran: *“El artículo 12 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, reconoce el derecho de acceso a la información pública, en los términos previstos en el artículo 105 de la Constitución, de forma amplia “a todas las personas”, sin requerir la acreditación de acreditar un determinado interés, y las disposiciones de la citada ley que integran su título I, referido a la transparencia de la actividad pública, en el que se incluyen las normas que regulan el derecho de acceso a la información pública y entre ellas el citado artículo 12 de reconocimiento del derecho de acceso a la información pública todas las personas, son de aplicación a las entidades que integran la Administración Local, por disposición del artículo 2.1.a) de la citada ley”.*

6. Horiek horrela, Arartekoari igorritako informazioa aztertuta, ikus daiteke kexagileak, jardura horrek sortzen dituen zarata- eta usain-arazoaren salaketa batekin batera (Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organismoari dagokio salaketa hori izapidetzea), Errenteriako Udalarari honako informazio hau ere eskatu diola: XXXXri emandako obra-lizentziei buruzkoa, enpresak aurkeztutako egikaritze-proiektuaren



edukiari buruzkoa eta Erreneriako Udalak ingurumen-organoari bidalitako salaketa-kopuruari buruzkoa.

Aipatu beharra dago Erreneriako Udalak, erantzun-idazkian, jarduera horren instalazioetatik datozen zarata- eta usain-arazoengatik aurkeztutako ingurumen-salaketak Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoan jakinarazteko eta bideratzeko egindako udal-jarduketa guztien berri eman duela.

Jarduketa horien barruan, Erreneriako Udalak justifikatzen du kexagileak 2022ko azaroaren 28an bidalitako eskaera salaketa gisa kalifikatu zela eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera bidali zela, eta horren berri eman zitzaiola kexagileari 2022ko abenduaren 14an.

Hala ere, zehaztu behar da kexagilearen uziaren xedea, Arartekoari egindako erreklamazioan ere adierazi zuena, Erreneriako Udalak hirigintza-lizentziak emateko jarraitutako hirigintza-espedituetan dagoen informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzea zela, instalazio berrien zarata murrizteko neurriak ezartzeari dagokionez eta udalak ingurumen-organo eskudunaren aurrean XXXXk sortutako usain txarrak zenbat aldiz salatu dituen jakiteari dagokionez.

Horri dagokionez, Arartekoaren iritziz, beraz, dagokion obrak baimentzeko jarraitutako udal-espedituetan eskatutako dokumentazioaren eta informazioaren existentziaren eta Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoaren aurrean ingurumen-salaketak izapidetzeko jarraitutako udal-jarduketan kopuruaren balorazio egokia egitea falta da.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzeko eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako gomendio hau egiten zaio Erreneriako Udalari:

Gomendioa

Erantzuna eman diezaiola obra-lizentziak emateko udal-espedituei buruz eta Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoan ingurumen-salaketak izapidetzeko egindako udal-jarduketan kopuruari buruz egindako informazio-eskaerari, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotakoarekin bat etorriz.